

Garean-Jarduerak

TXOKOLIPUINAK

Martxoak 25
Apirila 29
Maiatzak 27
18:00etan La Bota Elkarte



LIZARRAN KANTUZ

Martxoak 28
Apirilak 25
Maiatzak 30
19.30an Baxenabarra kaletik abiatuta

IRAKURLE KLUBA

Martxoak 26
Ian McEwan, Hoben ordaina
Apirilak 30
Elias Canetti, Mihia aske
Maiatzak 28
Iñigo Aranbarri, Zulo bat uretan
(idazlearekin solasaldia)
19:30ean Lizarrako liburutegian

BERTSO ESKOLA

Helduak
Asteazkenero, 19:30ean
Lizarrako Beinat Etxepare AEK Euskaltegia
Haur eta gazte
Asteazkenero, 16.00-17.00 eta 17.45-18.45
Lizarrako Beinat Etxepare AEK Euskaltegia

ERROTA

Maiatzak 18
Miren Agur Meabek eta Ibone Ibazeta
"Bitsa eskuetan" (poemak + saxofoia)
Liburutegian 19.30ean.

Korrika Kulturalaren egitaraua 2. orrialdean.



Euskahaldundu, lasterka, Korrika zein pausoka, baina egin

Korrika 17-k euskalakari hitza ekarri bazigun, Korrika 19 honetan euskahaldundu dugu hitza.

Orain lau urte Korrika 17-k Euskalakari hitza ekarri bazigun, Euskaldun eta Kalakari hitzen uztarketa, Korrika 19 honetan Euskahaldundu dugu hitza: Euskaldun izenak eta Ahal-dundu aditzak osatzen dute.

Gizakien ahalduntze terminoa eremu askotan erabili da, "ahalduntzea" talde zaurgarri edota baztertu orori aplikatu badakioke ere, jatorrian eta aplikazio praktikorik zabalduna, emakumearen askapen mugimenduaren bitartez egin da ezaguna.

... nahi dudalako ahal dudala, ahal-du-na naiz beraz...

Baina, eta oinarrian zer da norbait ahalduntzea? Prozesu bat da non norbanakoen edo komunitateen barne indar espiritual, politikoa, soziala edota ekonomikoa handitzen diren, horrela indarra eskuratuz bizi dituzten egoeretan aldaketa positiboak bultzatzeko. Gakoa norberaren gaitasunengan sinestean datza.

Korrikak erronka honen aurrean jartzen gaitu, norbanakoaren mailan eta maila kolektiboan. Nor naiz? Besteak beste euskalduna. Banekien. Zer izan nahi

dut? Euskalakaria. Korrika 17-n aldarrikatu genuen. Nola atera bazterketa linguistikoa, sozial eta ideologikotik? Jakinez horretarako gai naizela, eta nahi dudalako ahal dudala, ahal-du-na naiz beraz, eta, hortaz, ahaldundu dut neure burua.

Denok bilatzen dugu koherentzia gure bizitzan, gutako askorentzat euskaldun sentitzea ezinbestean euskaraz aritzearekin lotu dugu. Eta egoera minorizatu honetan indarririk handienean sinistu beharrean gaude, norberak bere baitan duen horretan. Sentitu eta egiten dugunarekin koherente izan nahi dugu eta bi bide besterik ez ditugu begien parean: euskaldun sentitzeari utzi edo euskaldun aritu, euskalakari. Bigarren hau da askoren aukera, horretarako ahalduntzen gara, eta zurea?

Korrika 19ren jarduerak

Hemendik eta Korrika iritsi bitarte, ekitaldi eta jarduera asko ditugu, hona hemen hauetako batzuk.

OTSAILEAN

Asteazkena 4

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak
Lizarreria kiroldegian, 17:00etan

Osteguna 5

Mitologia hitzaldia Ixabel Milletekin.
Gure Hizkuntzan, 19:00etan

Ostirala 13

Korrika aurkezpena
Basaula elkartearen, 20:30ean.

Igandea 15

Mikel Urdangarin
Gazteriaren Etxean, 18:00etan

Larunbata 21

Mintzafaria
Penaguda elkartearen, 22:00etan

Ostirala 27

Yogurina Borova
Gure Hizkuntzan, 20:00etan

MARTXOAN

Igandea 1

Dinoterma Eguna. Enzison paseoa.
Arnedillon termak eta bazkaria.

Ostirala 6

"Mil a zien" bakarrizketa eta afaria
Lizarrako Pinupe Gaztetxean, 20:00etan.

Larunbata 7

24 Ordu Euskaraz (mintzodromoa, laburmetraien emanaldia, bazkaria, haurrentzako jolasak, karaokea, taloak, jaia gauean...)
Lizarran, 10:30etik aurrera.

LAGUNTZAILEAK

Besteak beste (barkatu bat edo beste ahaztu badugu): Lizarrako Gazte Asanblada. Irantzuko Korrika Batzordea. Lizarrako Udaleko Euskara Zerbitzua. Garean Euskara Elkarte. Gure Izkuntza Elkarte. Gure Geroa Elkarte. Basaula Elkarte. San Miguel Pilota Eskola. LAB. Peña La Bota. Irriherri Euskara Elkarte. Larraiza Dantza Taldea. Lizarrako Mendizale Elkarte. Lokiz Aldeko Korrika Batzordea. Ameskoako Korrika Batzordea. Uztaldi. Mintzakide.

Korrika Estellerrian

Martxoak 25, asteazkena

Biana 21:36
Mendabia 23:40

Martxoak 26, osteguna

Lodosa 00:51
Andosilla 02:28
Azagra 03:32

Martxoak 27, ostirala

Gares 17:39
Zirauki 18:44
Lorka 19:30
Lizarra 20:25
Abartzuza 21:20
Muez 22:25
Izurzu 23:16

Igandea 8

Mendi Martxa Txikia (Kalderas de Botero).
Barindanon, 10:00etan.

Asteazkena 11

Bertso Korrika
La Bota Elkartearen, 19:00etan

Larunbata 14

Lokiz aldeko Korrika Jaia
11:00etan korrika txikia Antzingo inguruetan.
Bazkaria eta ondorengoak Antzinen.

Irantzu Mankomunitateko Korrika Jaia

11:00etan korrika txikia Lakarretik Allotzera.
Bazkaria eta ondorengoak Allotzen.

Hordago Ardoa (ardo dastaketa berezia)

Lizarrako Gure Geroa elkartearen, 19:30ean.
Sarrera: 6 € / 5 € Korrika laguntzaile txartela.

Igandea 15

Zonifikazioaren mugak gaindituz martxa.
Hilobi Saindutik abiatuta, 11:00etan.

Larunbata 21

Ameskoako Korrika Jaia
10:00etan Korrika Txikia Larraionatik Zudairera.
Bazkaria eta ondorengoak Zudairen.

Ostirala 27

Euskal Jaia (Katxetasen eta Pinupen)
Afarria eta kontzertuak.

Larunbata 28

Pilota Jaialdia
Remontival frontoian, 16:00etatik 20:00etara.



Bodegas  Lezaun
Asador-Jatetxea

Enoturismo
 Bisita gidatuak
 Ardo-dastoketak

Lakar (Deierri) NAFARROA
 info@lezaun.com - www.lezaun.com
 Bodega 948 541 339 - Asador 948 541 231

Elena Etxalar

Sorkunde Garbia pasealekua, 33
 31200 Estella-Lizarrar

La Bota Proiektua: ehun baietz!

La Botaren lokala eraberritzeko lanen lehen fasea amaitu dugunean, bazkide berriak erakartzeko "Ehun baietz" kanpainari ekin diogu.

■ La Bota

Martxan gaude, bagoaz. La Bota Peñako bazkideen berritiko ametsa gauzatzeko bidean ari gara; Lizarra eta bere inguruko bizitza sozial eta kulturala dinamizatzea eta aberastea, urte osoan zehar bizirik eta ekinean egongo den lokal zabal, ireki, eta parte-hartzailea sortuz eta kudeatuz. Helburu ederra!

Baina proiektua herrikoia, zabala, erakargarria, dinamikoa eta ekonomikoki bideragarriagoa izateko, behar zaitugu! Bazkide berriak nahi eta behar ditugu. Horretarako ekin diogu "Ehun baietz" bazkide berriak erakartzeko kanpainari. Ehun bazkide berri nahi ditugu eta horretan ere aurrera goaz; hedabideetan atera gara, kartelak jarri ditugu, bideoa egin eta zabaldu dugu eta egun hauetan, bertako Klotaldearen musikaz eta Paularen ahotsaz kanta bat grabatzen ari gara. Jendea animatzen ari da eta dagoeneko bazkide berriak ditugu, beste batzuk izateko bidean dira. Hala ere, gehiago izan nahi eta behar dugu. Hartara, orain duzu ilusio eta proiektu honen parte izateko aukera!

Allinibar kaleko lokala 86 bazkideen artean erosi genuen. Halere, ez dugu gure burua lokalaren jabetzat jotzen, La Botarena dela uste baitugu eta ez bazkideena. Asmoa da lokala beti proiektuari lotuta egotea eta belaunaldi belaunaldi transmititzea.

Lokal berria bazkideentzako topagune eta aisialdi gune izateaz gain, gehiago zabaldu nahi dugu. Herriko kolektiboak ere proiektuan parte hartu eta lokala erabiltzera gonbidatzen ditugu. Argi daukagu ez dugula elkarte gastronomiko hutsa izan nahi. Horregatik, herritar guztiei zabalduko herri bazkariak, kultur eta aisialdi jarduerak egiten segi nahi dugu eta, era berean, herriko festa eta ospakizunak antolatzen eta bertan kolaboratzen segi: inauteriak, korrika, kaldereroak...



Euskara eta euskal kultura ezinbestekoak dira La Bota Proiektuan. Bazkide euskaldun asko gaude eta ez gara lokalean eta jardueretan euskararen presentzia bermatzearekin konformatzen. La Bota ere Euskaraz bizi nahi dugu eta lokal berritua euskararen gune ere bilakatu.

Hauek dira orain arteko urratsak, asmoak eta egindako ekintzak, hemendik aurrerakoak denon esku daude. Asko dago berritzeko, sortzeko eta bizitzeko, La Bota Proiektuak merezi du, Lizarrak merezi du! Anima zaitetz! Egin bazkide!

labotaproiektoa@gmail.com

tel: 609 832 910

100+ BAIETZ.
A QUE SI.



Mundua deskubritzeko
jostailu eta jolasak

Comercio 22 • 31200 Estella-Lizarrak • 948 985 306



Lorategi mantentze-lanak
LOREZAINZA

Valdelobos, 35
31200 ESTELLA-LIZARRA
T. 948 554 067 - F. 948 395 112
M. 606 980 679
lizarjard@hotmail.com



24 ordu euskaraz

Ezetz! Baietz! Ezetz! Baietz euskaraz egin egun osoan, non eta gure herrian!

Erronka, desafio, aupada norberari eta Lizarraldeari, egun osoko egitaraua ongi pasatzeko, gozatzeko, emozionatzeko eta erakusteko gai garelara. Hori da proposatzen dizuguna.

Goizari Llanos Aisialdi Gunean, Golem-en, ekinen diogu 10:30ean. 2 mintzodromo eta 6 hizketa gai; hizketa gai bakoitzean 4 solaskide, hortaz, 18 lagun eza-gutzeko aukera, 18 aurpegi berri euskaraz egiteko. Lehen mintzodromoan kafea eta pastak, mintzodromoan artean indarberitzeko hamaiketako eta goiz osoan zehar erakusketa bat ikus-entzungarri. Goiza amaitzeko ordu erdiz laburmetraien emanaldia zinema aretoan. Plan lasaia, plan eroso, plan betea.

Goiza amaitzean herri bazkariaren txanda, 14:30ean Ikastolako pilotalekuan, eta bazkalostean haurrentzako txotxongiloak eta gaztelu puzgarria. Ondotik denontzako herri jolasak eta bazkariaren jasoketa denon artean. Lana ezpaita bakarrik egiten...

18:00ak aldera kalejira Café con Letras-era abiatzeko momentua. Bertan, eta 21:00ak bitarte, euskaraokoa, dantzaldia eta poteoa; ondotik kalejira-kantuan alde zaharrera. Han, Gure Hizkuntza Elkartean talo-jana. Gauerdibitartean euskal giroa alde zaharrean eta 23:45 aldera eguneko argazkien proiektzioa Gure Hizkuntzaren parean, kalean, eta jaiaren borobiltzea.

Inork esan dezake, zergatik 24 ordu baldin eta egitarauan 14 ordu badaude? Bada, bi arrazoiengatik. Lehen esan bezala, erronka gi-

zarteari bezainbeste norbanakoari botatzen zaio. Egunak, giroak eta jarduerak lagungarri behar dute, ate ireki bat, baina norberak zeharkatu behar du markoa, norberak osatu bere euskararen eguna: gosaltzen Berria irakurri, ETBI ikusi, aspaldi deitu gabeko lagun euskaldunari telefonoz hots egin, komertzio euskaldun batera joan, Mikel Urdangarinen diska jarri, Euskadi Irratiko albistegia entzun...

Dena den, Lizarrak zer eskaini ere badu,

eta egitarauaz kanpo bada ere, badira beste bi jarduera euskararen erabilera lagunduko dutenak.

Aurrena, ostiral horretan bertan, martxoak 6, Pinupe Gaztetxean, 20:00etan "Mil a zien. Baietz barrez lehertu" bakarrizketa eta ondoren 30 lagunentzako afaria. Eta, larunbat gauean, gauerditik aurrera, "Neue Buruben" euskal taldearen kontzertua Maria Vicuña Gazteriaren Etxean 3 eurotan.

Helduko al diozu erronkari eta demostratu herri honetan posible dela euskaraz bizitzea? Trantsizioa egingen al dugu "Euskararen egun"-etik "Eguna euskaraz"-era? Guk baietz diogu. Eta zuk? Ezetz? Baietz? Zure esku dago.



... euskaraz
bizitzea herri
honetan posible al da?
Zure esku dago.






Foto-inkesta

Korrika

1. Korrika herrira iritsi baino lehen, zer egiten duzu (Korrika Kulturala, Korrika entrenatu...)?
2. Korrikan bizi izandako urte, kilometro, une berezia. Zergatik?
3. Aurtengo plana?



Maidier Etxeto

1. Korrika Kulturalako ekintzetan parte hartu, Korrika iristen denerako giro polita izateko.
2. Lizarrara heltzen den bakoitzean, une berezia da; aurrekoan lekukoa eraman nuen, eta oso hunkigarria izan zen.
3. Korrika Kulturalan antolatu diren ekintzetan parte hartu eta gogotsu Korrika itxaron, beharbada Urepelera joan... eta hasierako une berezi hori ere bizi.



Kalen Artze

1. Niretzat Korrika ez da egun bakarreko kontua. Aldez aurretik, egunak eta egunak ematen ditugu Korrika "sukaldatzen" eta Korrikarekin disfrutatzen: eskolan, Korrika Kulturalan...
2. Korrika aldiro berezi eta zirraragarria da. Baina, aukeratu beharko banu, bi Korrika aipatuko nituzke. Lehenengoa, Korrika 8.ean alaba

zaharrenarekin haurdun nengoela korrika egin nuenekoa. Eta bigarrena, aurrekoan, Gareanen kilometroan Mari Josek eta biok lekukoa eraman genuenean.

3. Aurtengo plana? Bada arestian esan bezala, Korrika Kulturalan parte hartu, Korrika Txikia prestatu eta, eguna ailegatzan denean, lagunekin korrika eginez gozatzea! Ziurrenik, entrenatu ere egin beharko genuke baina...



Bittor Leal

1. *Euskal Gramatika Osoa* deitzen den liburua, nire gaueko mahiaren gainean jartzen dut. Horrekin, egunero euskara ikasten loak hartzen nau. Ez da txantxa, aholku on bat baizik. Baina kontua ez da ikastea, hitz egitea leku guztietan baizik.
2. Guztiak bereziak izan dira. Garrantzitsuena Korrikan parte hartzea izaten da.
3. Non eta noiz ez dakit, baina kilometro batzuk korrika eginen ditut. Betiko moduan eta, nola ez, betiko aldarrikapena egiten; hots, "Abokatuok ere euskararen alde, gure eskubide delako".



Regino Etxabe Larraona

1. Urteak igaro dira, baina ilusioa berdina da. Beste moduan, jakina. Dena den, gogo handiz ospatzen dugu.
2. Nik uste dut 1989 urtean izan zela, kilometro batean lekukoa harro harro eraman nuenean.
3. Korrika ikustea eta Lizarrako euskaltzale guztiokin jai giroan ondo pasatzea.



GARI eta SEI

ANDER SOLANO

EZ DAKIT NOLA MOLDATZEN
GAREN EUSKALDUNOK?

BAINA BETI NORBAITEK AURRERATZEN
GAITU ESQUINALDETIK!


KORRIKA BAEK



denborapasak



Gurutzegrama



Korrika 19

Ezker eskuin

- 1 Korrikaren hilabetea.
- 5 Komikalariek erosten dutena.
- 7 Komikalariek daramatena.
- 8 Aurtengo leloa.

Goitik behera

- 2 Lizarrenira iristen den eguna.
- 3 Hasierako herria.
- 4 Bukaerakoa.
- 6 Antolatzailea.

LIBURUDENDA

INO

PAPERDENDA

Kale Nagusia, 78 - Kale Antxo Ramirez, 2
Tel. eta fax: 948 550 383 · LIZARRA



Jatetxea

Lagun-taldeendako bazkariak eta afariak

Merkatondoa, 14 · 31200 Lizarra · 948 555 695

#ap25Anahitasuna

Zer ote? Zer ote? Nonahi ageri eta ezin igarri!



Erantzun. Ez al zaudete nekatuta muturreko egoerei, azpiko erasoei, etengabeko desprestigioari, itotze ekonomikoari eta sozialari erantzuteaz? Besteek jotzen duten abesti baten inguruan dantza eta dantza ibiltzearen sentipena ez al duzue? Txotxongilo errukarriak al gara? Koittaduak? Pitzatutako ltoitz bategan adabakiak josten aritzearen sentsazioa ez al duzu?

180 graduko biratzea leman, bolanteari eragin, kontra-martxa...

Gogoratzen al zarete 1998an Sadar futbol zelaia bete genueneko hura? Zer sentitu genuen orduan? Gogoratzen al zarete? Bada garaia gar horiek beste behin ere pizteko, berreskuratzeko egun hartan sentitu genuen indarra. Belaunaldi berria munduratu zaigu ordutik hona, 17 urte dira, haiek ere ezagutu behar dute indar hori.

#ap25Anaitasuna-n Nafarroako euskal herriak joko du musika eta dantzan jarriko dugu mundu osoa. Egun ho-

rretan, apirilaren 25ean, Anaitasunak gainezka egitea nahi dugu.

Ekitaldi emozionala, berrizalea eta berritzailea, euskaldunak ahalduntzeko helburua izanen duena; aingura emozionala izanen dena euskaraz bizi nahi dugunok indarberritzeko eta eguneroko enbatan tinko eusteko.

Apirilaren 25ean Anaitasunaren aurkeztuko dira Nafarroan euskaraz bizitzeko hizkuntza-politikaren gakoak, eragiteko eta aldatzeko helburuarekin. Baina ez dugu proposamen hutsa egingen, ezta emozioekin bihotzak berotzera mugatu nahi ere, aldaketaren lemazain izan nahi dugu.

Bada garaia, har dezagun inizatiba, ekin etorkizunari, herri zahar honek bihotza gazte baitu oraindik.

#ap25Anaitasuna

*ekitaldi emozionala,
berrizalea eta
berritzailea...*

kotarro

31. zenbakia

Julio Ruiz de Alda, 6 behe, ezk.
31200 Lizarra - Nafarroa
Tel. 615 752 842

Argitaratzen du:

Lizarrako GAREAN Euskaldunon Elkarteak



Garean Euskaldunon Elkarteak ez du inolako ardurarik hartzen, Kotarro aldizkarian agertzen diren artikuluen edukieraren gainean, egileena baita bere osotasunean.

Diseinua eta maketazioa:
Chapitel Komunikazioa

Lege gordailua: NA. 1986-2007
Ale kopurua: 700



paper birziklatua

Kotarro aldizkarian agertzen diren artikuluen edukieraren ardurarik Garean Euskaldunon Elkarteak ez du hartzen, edukieraren erantzukizuna, bere osotasunean, autoreena baita.